

## Antxiñako fotografia



### Arantzazuko fraidegai oñatiarrak

**M**ajo aldatu dira denbora gutxiren buruan ohiturak eta bizimoduak. Gizaldi erdittik gora dakogunok kanbixo nabarmenak ezagutu ditugu geure bizitzan zihar. Esate baterako, gu mutikuek giñanian, **oso normala zan herriko edo herritik kanpoko seminarixoren batera ikasketak egittera fatia**. Oñatin gehixenak Arantzazuko frantziskotarren kolejixora eta agustiño laterandarrak kalia eukain ikastetxera jotzen euen; Donostiako abadegaixen seminarixora edo beste komenturen batera be faten ziran banaka batzuk.

Egoera horren **aldaketia 1960ko hamarkadan hasi zan**. Batetik, **eliziak** berak, Vaticano-ko II. kontziliuaren ondoren batez be, **transformaziño sakona** euki eben urte hareittan; eta bestetik, 1963tik aurrera Oñatin barriro **bigarren maillako institutua** jarri zanian, herrixan ikasteko aukerak asko gehittu ziralako, mutiko gutxiagok sentiduten eben fraidetzarako edo abadetzarako bokaziñua.

Gaurko **argazki honetan** 1960ko udazkenian Arantzazun ikasten ziharduain **hogeita hiru txantxikuar agerketan xaku**: gehixenak mutiko gaztiak; banaka batzuk koristak, teologuak, meza barrixa emundakuak be bai; beste hainbat oñatiar ibiliko zan orduan fraidetzarako ibilbidia osoketan Foruan, Zarautzen eta Oliteko frantziskotarren komentuetan. Hemen agiri diran banaka batzuk apaiz izatera aillegau ziran eta bizi diranak Euskal Herrixan nahiz Ameriketara dihardue euren eginkizunetan. **Horreittako bat gaur egungo Arantzazuko guardiana dozue**. Goittik behera eta ezkerretik eskumara hara euron izenak eta jatorrixak:

Goixenekoko illaran: **Patxi Irizar**, *Auntxola*, San Juan kalekua; **Joxe Luis, Migel** eta **Tomas Elortza** anaiak, Olabarrietako Auntzerrekakuak; **Joxemari Arriaran**, *Xipri*, Patrua kalekua; eta **Agustin Biain**, Murgiko Arretzekua.

Erdiko illaran: **Bixente Urtelai**, Larrañako Leibarkua; **Julian Arregi**, San Antue kaleko Sindikatukua; **Salbador Negueruela Guri-di**, *Txolo*, Kale Zaharrekuak; **German Kortabarria**, Lezesarriko etxe barrittakua; **Faustino Erostarbe**, Kale Zaharrekuak; **Sabino Barrena**, Urruxolako Barrenetxekua; **Patxi** eta **Manolo Irizar** anae birkixak, *Auntxolatarrak* eta Kale Zaharrekuak; aurreko bixen tartian **Migel Anjel Intza**, Bidaurretakua; **Jabier Agirrebaltzategi**, Araotzeko Jausoro Garaikua; **Ramon Irizar**, Zubillagako Martezkua; eta **Jabier Odriozola**, *Otxua*, Atzeko kalekua.

Beheko illaran belauniko: **Sebastian Billar**, Olabarrietako Zediagakua; **Iñaxio Biain**, *Etxezar*, Portalekukua; **Tomas Orueta**, Olabarrietako Santzakua; **Anjel Txintxurreta**, *Mardo*, Portalekukua; eta **Joxemari Arregi**, *Koixkar*, Santa Marinakua.

J. E.

Eskerrak emun bihar dostegu, bihotzez, argazkixa eta argibidiak eskuratu doskuenoiri:  
Patxi Irizar Etxezarreta, Jabier Arriaran eta Sabino Barrenari.